



GOZATU ETA SUFRITU MARGOEN BIDEZ

Alegiko jubilatuen tabernan ikusgai daude Lucia Arenasen erretratuak, loreak, paisaiak eta abstrakzioak > 5

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2008-04-12

VIURTEA 1.406.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Energia berriztagarriak ardatz dituela, gaur hasiko da Naturaldia

TOLOSA 'Energia, eta ekin!' lelopean hainbat ekintza izango dira adituek emango dituzten hitzaldiez gain

GAUR Samaniego eko-eskola bisitatuko dute eta Roberto Ruizek pintxoak prestatuko ditu Eguzkiaren sukaldean 2



Asteasu, Irura, Anoeta, Zizurkil, Villabona eta Adunako alkateak, atzo kanpainaren aurkezpenean. I.GARCIA

UR KONTSUMOA MURRIZTEA HELBURU DUEN KANPAINA ABIAN

TOLOSALDEA Ernioaldea 21 osatzen duten sei Udalek jarri dute martxan; ur kontsumoa aurrezteko poltsa banatuko dute etxeetan 4

Gizarte Zerbitzuen egoitza bisitatu dute

LEITZA Nafarroako Legebiltzarreko zenbait kide izan dira Leitzako Gizarte Zerbitzuen egoitzan 7

Oroimenaren bulegoak erantzun «oso ona» izan du

TOLOSA Atzo arte egon zen zabalik Aranburun; Aranzadik lekukotzak grabatzen jarraituko du 3

hitza info

elastiko berriak salgai
haur, gazte eta helduentzat

elastikoarekin
poltsa opari!

Harpidedunentzat
%25
merkeago

hitza®

Tolosako
HITZAren
bulegoan
eskuragarri.

DENDA BERRIA

Txalaka

PROMOZIO ARTIKULUAK

Zure enpresa promozionatzeko aukerarik onena, mota guztietako artikulua, guztiak personalizatzen ditugu. Ezkontza artikuluen aukera zabal

Korreo kalea, 46 • 20400 TOLOSA • promotxalaka@euskalnet.net
Tel./Faxa: 943 11 71 63 • 605 725 517



Aurkezpen ekitaldian atzo, ezker-eskuin: Shole Martin, Asier Arrese, Carlos Ormazabal, Jokin Bildarratz, eta Luis Chillida. ESTI EZBEIZA

Energia berriztagarriak dira ardatz Tolosa Naturaldia jardunaldietan

Tolosa » Gaur izango dira lehen ekitaldiak; hasteko Samaniegora bisita, eta gero, Eguzkiaren sukaldean prestatutako pintxoak.

ESTI EZBEIZA

Energia, eta ekin! Ileoan gaur emango diete hasiera Tolosa Naturaldiako jardunaldiei. Aurtengoa energia berriztagarriak izango dira ardatz, «gure etorkizuna jasagarria izatea nahi baldin badugu, gure ohiturak aldatu behar baitaizkagu».

Jardunaldi hauetara jende gehiago erakartzeko xedearrekin, hainbat aldaketa egitea erabaki dute antolatzaileek. Honenbestez, adituek eskainiko dituzten hitzaldiak gain, besteak beste, Samaniego eko-eskolara bisita, Eguzkiaren sukalde eta zine saio bereziak izango dira. Bestalde, duela urte gutxi abiarazitako ekimenari ja-

» EGITARAUA

Apirilak 12, gaur

■ **Bisitaldia Samaniego ikastetxera.** 10:00etan, Eukal Autonomi Erkidegoko lehendabiziko eko-eskola publikoa bisitatzeko aukera izango da.

■ **Eguzkiaren sukaldea.** Fronton jatetxeko Roberto Ruizek, eguzki sukalde eta labeak erabiliz pintxoak prestatuko ditu 12:00etatik aurrera.

Apirilak 13, bihar

■ **Artikoko erregeak filma ikusgai.** 17:00etan, familia osoari zuzendutako lan hau eskainiko dute Leidorren, euskaraz.

■ **Zakarrontziak erakusketaren inaugurazioa.** Miren Gonzalezen lanak ikusgai izango dira 18:30etik aurrera Leidor antzokiaren sarrean.

■ **Paisaia eraldatuak filma ikusgai.** 20:00etan eta 22:30ean eskainiko dute lan hau Leidorren.

Apirilak 14tik 18ra

■ **Eragimenez gidatzeko ikastaroak.** Tolosako Kultur Etxean izango dira goiz eta arratsaldeetan. Izen-ematea Udaletxean egin daiteke, 943 69 75 21era deituta.

Apirilak 14, astelehena

■ **Eguzki etxea, egia bihurturik.** Sergio Vega Sanchez (UPM unibertsitateko zuzendaria) eta Ana Gomez (Arkitektoa. Arkitektura Bioklimatikoko masterra) izango dira hizlari. Aurkezlea Erik Labayen arkitekto teknikoa izango da. Jardunaldia Kultur Etxean izango da, 20:00etan.

Apirilak 15, asteartea

■ **Landa ingurunea: Energia arloko sostengarritasunaren adibide.** Andotz Telleria (Kapelbiko zuzendari teknikoa) eta Xabier Esteban (Usurbil GLHBko Energia Berriztagarrien Guneko Kudeatzailea)

izango dira hizlariak. Aurkezle lanak Juan Kruz Alberdi ADR Behe-mendiko kudeatzaileak egingo ditu. Jardunaldia Kultur Etxeko areto nagusian izango da 20:00etan.

Apirilak 16, asteazkena

■ **Giro onarekin eraikitzen.** Emilio Miguel Mitre (Arkitektoa, ALIA, Arkitektura, Energia eta Ingurugiroa SL). Aurkezlea Mikel Iriondo (Tolosako hiri antolamenduko udal arauak berrikusteko lanen arduraduna) izango da. Jardunaldia Kultur Etxean izango da 20:00etan.

Apirilak 17, osteguna

■ **Bioerregaiak: ekologikoak?** Juan Lopez de Uralde (Greenpeaceko zuzendari exekutibo) eta Carlos A. Fernandez Lopez (IDAEko Bioerregai saileko burua) izango dira hizlari. Aurkezlea Enrique

rraipena emanaz, jardunaldiak Tolosatik kanpora ere aterako dira, Txillida lekura, Oreretara eta Zarautzera hain zuzen ere.

Gastronomiaren inguruko jaialdi ugari antolatuta dira azken urteetan Tolosan. Hala, «esfortzu berezia egiten ari da Udala, Tolosari oso lotuak dauden elementuak zaintzeko». Bildarratz alkateak aipatu bezala, horietako bat dira landa lurak. Horregatik, hauek mantentzeko, garrantzitsua da energia bide berriak asmatzea.

Gaurko ekitaldiak

Jardunaldiei hasiera emateko, alde batetik, 10:00etan Samaniego Ikastetxera bideratuko dira. Hau, EAEko lehen eko-eskola da. Honen xehetasunak, ikastetxeko zuzendari den Itziar Etxeberriak azalduko ditu. Baita, eraikineren egile den Juan Labayenen eta erakuntza sostengarrietan aditu den Erik Labayenek. Ondoren, 12:00etan, Fronton jatetxean, Eguzkiaren sukaldean pintxoak nola prestatu erakutsiko du Roberto Ruiz sukaldariak.

Monasterio, Garraio Unitateko arduraduna izango da. Jardunaldia Kultur Etxean izango da 20:00etan.

Apirilak 18, ostirala

■ **Joakin Araujori eta Miguel Delibes omenaldia.** Udaletxeko batzar aretoan izango da ekitaldia, 19:30ean.

■ **Ingurumenaren geroa, gure esku.** Udaletxeko batzar aretoan izango da ekitaldia, 19:30ean. Joakin Araujo idazle eta naturalista izango da hizlari, baita, Miguel Delibes de Castro CISCeko lkerketako irakaslea ere. Aurkezle lanak Elisa Sainz de Murieta k (Biodibertsitate eta ingurumen Partaidetzarako zuzendaria, Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailean) egingo ditu.

■ **Urre beltza.** 20:00etan eta 22:30ean eskainiko dute lan hau Leidor antzokian.

Sehaska
Kresala dantza taldea

TOLOSA
apirilak
12
larunbata
20:30

LEIDOR

TOLOSA 2015



Euskal Herriko Itzulia eskualdetik

KIROLAK » Euskal Herriko Itzulia eskualdetik igaro zen atzo. Albizturgo Santutxo jatetxearen ingurutik sartu, Tolosa zeharkatu, Alkizara igo eta Zizurkil eta Aduna-

tik igaro ziren txirindulariak. Argazkiko Egoi Martinez eta Bernhard Kohl buruan zirela pasatu ziren Tolosaldeko errepedeatik. E. EZBEIZA

Euskarazko komunikabideen sorrera, egungo egoera eta etorkizuna hizpide

Komunikabideak » HITZAren bosgarren urteurrenaren baitan antolatutako ekitaldien baitakoa izan zen.

ERREDAKZIOA

Euskarazko komunikabideak izan zituzten hizpide asteazkenean Tolosako udaletxean. Izan ere, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAk, bere bosgarren urteurrenaren baitan, mahai ingurua antolatu zuen gaiaren inguruan. Jaime Otamendi ETBko albistegietako burua, Arantxa Iparregirre Leitz-

ko Karrape Irratiko esataria, Martxelo Otamendi Berría egunkariaren zuzendaria eta Joxemi Saizar TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN zuzendari ohia aritu ziren euren esperientzia konpatzen, Nerea Pikabea Euskadi Irratiko kazetaria moderatzaile zutela.

«Ez dago gurea bezalako komunitaterik»

Egungo egoera aztertzerako orduan, Martxelo Otamendi tolosarrak adierazi zuen ez gaudela hain gaizki hizkuntza gutxitua duten beste lurraldeekin konparatuta, «ez baitago beste komunitaterik gure zerbitzuak eskaintzen ditue-



Jaime Otamendi, Arantxa Iparregirre, Nerea Pikabea, Martxelo Otamendi eta Joxemi Saizar, asteazkeneko mahai inguruan. I.T.

na, baina, hala ere, oso urrun gaude normalizaziotik, alboan ditugun hizkuntzak oso sendoak direlako». Jaime Otamendi elduindarrak beste herrietan dituzten arazoei guk euskararekin dugun zailtasuna gehitu behar diogula esan zuen, eta sekula baino profesional hobeak ditugula. Arantxa Iparregirre leitzarrak, berriz, teknologian asko hobetu dugula esan zuen, eta erakundeek gehiago hartu beharko lituzketela kontuan tokiko hedabideak. Joxemi Saizar tolosarrak Tolosan historian zehar egon diren aldizkariak aleak erakutsi eta horien historia azaldu zuen, eta Tolosaldea pribilegiatua dela ere aipatu zuen, «prentsa, irratia eta telebista baititugu».

Bestalde, guztiak ados jarri ziren gaur egungo gazteek duten konpromiso maila txikiagoa dela esatean, eta barietatea eta kalitatea eskaini behar zaiela irakurleei, entzuleei eta ikusleei azaldu zuten.

Oroimenaren bulegoak izandako erantzuna «oso ona» izan da

Gizartea » Atzo arte egon zen zabalik, baina oraindik ere lekukotzak grabatzen jarraituko dute Aranzadiko kideek.

INIGO TERRADILLOS

Aranzadi Zientzia Elkarte Tolosako Udalaren babesarekin Gerra Zibilak eta lehen frankismoak (1936-45) Tolosan izandako ondorioak ikertzen aritu da, «ez baitzegoen ezer ere idatzita horren inguruan, eta benetan sufrimendua nolokoa izan zen jakin nahi baiken». Hala, jasotako informazioa herriarren eskura jarri asmoz, arreta bulegoa egon da zabalik Aranburun martxoaren 3tik atzo arte. Aranzadi elkarteak kideek balorazio «oso baikorra» egin dute bulegoak izan duen harrerarekin.

Bereziki errepresioa jasan zuten biktimei edo hauen familiei zuzenduta egon da bulegoa eta erantzuna ona izan dela azaldu du Mikel Errazkin Aranzadiko kideak. «Gainera, istorio oso desberdinak izan ditugu, tipologia anitzekoak, horregatik, oso aberatsa izan da».

Helburu desberdinak

Oroimenaren bulegotik pasa direnek helburu desberdinak izan dituzte. «Batzuk guk jaso dugun informazioa jakin asmoz etorri zaizkigu; beste batzuk euren lekukotza utzi nahi zutenak izan dira eta baziren erreparazio morala eskatuaz, biktima zaiera aldarrikatuaz etorritakoak ere», azaltzen du Errazkinok.

Hala, informazioa bildu asmoz etorri direnen artean adibide bat



Mikel Errazkin Aranburu jauregian. I.T.

nabarmendu nahi izan du Aranzadiko kideak: «Tolosako familia bat etorri zen; senarra edo aitaren azken arrastoa 1936koa zen; Gerra hasi zenean Tolosaldeko herri batera joateko esan zioten berari eta bere emazte eta alabari; gerora, Asturiasen zauritu zela jakin genuen guk eta 1937n bizirik zegoela ere jakin genuen, eta hori familiak ez zekien; Exilioko ziurtagiriak topatu genituen eta nondik nora ibili zen jakin ahal izan genuen, eta baita Iparraldeko herri batean hil zela. Familiarentzat zauria handia izan da, eta dolurako aukera ere ez zuten izan, eta orain, ziklo hori itxi ahal izan dute, ez baitzekiten non zegoen hilobirartuta ere».

Bestalde, gehienak alde errepublikarrean altxamendua ematean gudari bezala aritutakoak izan dira bulegotik agertu direnak. Atxilotuak eta kartzela ezberdinetan izandakoak, kontzentrazio esparruetara eramandakoak —Burgoskora normalean—, langile batzilioetara eramanak, bando nazionalen aritutakoak, exilia-

tuak izan zirenak, eta baita Gerra Zibilaren ondorioak sufritu zituzten emakumeak ere, izan dira oroimenaren bulegoan.

Gogorrena: langile batalioiak

Lekukotzek azal dutakoaren arabera, gogorrena langile batalioiak izan ziren. «Lekukotzei geratuta aztarnen artean Gerraren ondoren jasandako umiliazioak aipatu dituzte», dio Errazkinok. «Erregimen berriarekin bat egitean ondasunak desjabetu zizkieten, egoera sozio-ekonomikoa oso gogorra izan zen; gosea, beldurra eta inbidia izan dira gehien errepikatutuzten sentimenduak». Batzuei

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosa erdiguenean bi logelako etxebizitza salgai. Egoera onean. Oso merkea. 665 70 86 35.

asko kostatu zaiela barruan zutena ateratzea azaldu baita ere Errazkinok; «oso gaizki pasatu duen jendea izan da, baina behin euren lekukotza kontatu eta gero gustura geratu dira, ateratzeko nahia ere bazuten».

Lehen fasea baino ez

Denera 32 pertsona igaro dira oroimenaren bulegotik. Lehen pertsona Gerra eta Gerraren ondorengoak bizitakoak edota hauen seme-alabak izan dira batik bat. «Ez da hirugarren belaunaldiko asko egon, eta horrek harritu egin gaitu, beraiek izan zitezkeelako informazioa jaso nahi zutenak».

Tolosako Udal Artxiboan topatu dute dokumentazio gehien Aranzadikoek, eta han bertan dago baita ere orain arte topatu duten informazioa, eta eskura izango dute Gerra Zibilaren jasadakoek. Bulegoa itxi duten arren, zerrenda handituz gero direnez, lekukotzak grabatzen jarraituko dute, beraz, «lehen fasean aurkitzen gara oraindik».

Gipuzkoako Atletismo Txapelketa izango da gaur, Berazubir

Kirola » Duela gutxi hil zen Tolosa CFko Jexux Lacunza omenduko dute txapelketan zehar.

ERREDAKZIOA

Kategori ezberdinetako (Junior, Jubenil, Kadete eta Beterano) Gipuzkoako Atletismo Txapelketa izango da gaur, Berazubi Estadionan, 17:00etatik aurrera.

Txapelketan zehar Tolosa CFko kirolari eta atleta handia izan zen eta pasa den martxoaren 19an hil zen Jexux Lacunzari omenaldi xumea egingo diote. Tolosa CFtik azaldu dutenez, «Lacunzaren oroimena bizirik mantenduko da, bai kirol aldetik, bai eta pertsona bazez; Tolosa CFren koloreak bazez; zutena, bai futbolarekin, bai saskibaloian bai eta atletismoan ere, eta hain justu, atletismoan izan zen arrakasta gehien lortu zuena». Gipuzkoako eta Espainiako txapel-duna izan zen hainbat urtetan.

ARAMBURU
Salgai (Aikiza). Etxe handia Iursallarekin. 4.000m², guztiz eraberritua.
Salgai (Tolosa). Etxebizitza. Soldadu kalean, sartzeko moduan.
Salgai (Tolosa). Etxebizitza garajearekin, Trinkele auzoan.
Salgai (Tolosa). Etxebizitza. Nagusia kalean, 1.1. Jogiakuraren sartzeko moduan eta bestea eraberrituko eta igogalburik gabe.
Salgai (Ibarra). Lokala. Euskal Herria kalean, Salgai.
Garajeak. San Frantzisko. Leidor azipian eta Amortzen (Tolosa) eta Idoiagan (Ibarra).
Salgai edo alokatzeko (Lasarte). Lokala, tximiniarekin, erdiguenean.
Alokatzeko (Tolosa).
Garajeak. San Frantzisko, Araba etorbidean eta Batxler Zaldibian.
Alokatzeko (Ibarra).
Pabiloi industrialak. Leaburuko bidean.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

Mahala
BASERIKO PRODUKTU NATURALAK
...ETA ORAIN
PROBIGURRAK
Jogurta
Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633



Ernioaldea 21eko sei udalerrietako alkateek prentsaurrekoa eman zuten atzo Anoetako udaletxean. I. GARCIA

Ur kontsumoa murrizteko kanpaina abian jarri dute Ernioaldea 21eko udalerriek

Agenda 21 » Etxeko olio erabilia eta hondakin arriskutsuak biltzeko zerbitzu berria ere martxan jarriko dute.

IMANOL GARCIA

Ernioaldea 21 osatzen duten sei udalerrietako alkateek ur kontsumoa murrizteko kanpaina aurkeztu zuten atzo Anoetako udaletxean. Aduna, Anoeta, Asteasu, Irura, Villabona eta Zizurkilgo etxe guztietan ur kontsumoa aurrezteko poltsatxo banatuko dute. Hain justu, udalerri hauekako ekintza planetako ildo bat da «ur kontsumo arduratsua sustatzea».

Poltsatxo horretan azalduko dira erabilpenerako argibideak: poltsara bi koilarakada gatz bota behar dira, ondoren urez bete eta gero komuneko zisternaren barruan sartu behar da. Horrela, komuneko bonbari tira egiterakoan litro bat ur aurrezuko da. Kalkuluen arabera, pertsonako urtean 4.000 litro espero dira aurrezteak.

Prentsaurrekoan azaldu duteenez, udalerriek ekintzaren eragin-kortasuna neurtu nahi dute. Horregatik, poltsatxoarekin batera gutun bat banatuko dute, poltsatxo erabili dutenen herritarren kopurua jakiteko. Egitasmo hau aurrera eramateko Ernioaldea 21eko Udalsarea 21en eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso dute.

Eguneroko zerbitzu berria

Beste egitasmo baten berri ere eman dute, hau da, etxeko sukaldako olio erabilia eta etxeko hondakin arriskutsuak biltzeko eguneroko zerbitzua. Aduna ez beste herrietan udal eraikin batean edukiontzia bat egongo da eta bertan utzi ahal izango dira olio erabilia eta hainbat hondakin arriskutsuak ere: pilak, bateriak, fluoreszenteak, bombila halogenoak, aerosol poteak, kotxeetako olioak, pinturak, barnizak, CD eta DVDak, erradiografiak... Hondakin likidoak pote itxietan utzi beharko dira. Proiektu hau aurrera eramateko Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso dute.

» NON ETA NOIZ JASO OLIOA ETA HONDAKINAK

- **Anoeta.** Abraham Olano udal kiroldegia. Astelehenetik ostiralera (08:00-12:00 eta 15:00-21:30) eta larunbatetan (09:00-13:00).
- **Asteasu.** Udaletxeko sarreran. Astelehenetik ostiralera (09:00-14:30).
- **Irura.** Udaletxeko sarreran. Astelehenetik ostiralera (09:00-13:00).
- **Villabona.** Udaletxeko arkupean. Astelehenetik ostiralera (09:00-14:00).
- **Zizurkil.** Aurrera udal bulegoetan. Astelehenetik ostiralera (07:30-15:00).

Zerbitzu berri horrek ez du ordezkatu hondakin horiek biltzen dituen furgonetak, hau da, Puntu Berde Mugikorrek. Hileroko zerbitzua ematen jarraituko dute ohiko leku eta orduetan. Bestalde, udalerriek eguneroko zerbitzu berri horren eta traste handien biltzetan berri ematen duen imana banatuko dute epe laburrean.

Osakidetzaren txartel berria egiteko aukera

I. GARCIA

Osakidetzaren txartel elektronikoa berria, ONA izenekoa, tramitatze-ko aukera dago Anoetako KZgunean. Laster, hilaren 24tik aurrera, Irurako KZgunean tramiteak egiteko aukera ere zabalduko da. Txartela egiteko, ez dela zertan anoetarra edota irurra izan azaldu dute.

ONA txartelak Osakidetzako ohiko txartela eta Izenpe txartel elektronikoa ordezkatzeko ditu. Hau da, bi txartel horien erabilpenak gauzatu ahal dira txartel berri horrekin: herriko errolda eskatzea, errenta egitea, medikuaren ordua eskatzea, mediku aldaketa eskatzea, bide laborala eskatzea...

Horiek guztiak Interneten bitartez egin daitezke.

Hain zuzen ere, Anoetako KZgunean ONA txartela nola erabili daitekeen ikasteko ikastaroak antolatuko dituztela adierazi dute. Hilaren 18an eta hilaren 25ean izango dira ikastaroak, arratsaldean. ONA txartela dutenentzat zuzenduak daude.

16 urte baino gehiago dituztenek atera dezakete ONA txartela. Doan da eta nortasun agiria eta Osakidetzako txartela eraman behar dira. Anoetako KZgunean, astelehenetik ostiralera 16:00etatik 20:00etara eta ostiral goizetan 11:00etatik 13:00etara egin daitezke tramitazioa.



Olanoren bisita izan dute herrian

ALKIZA » Markel Olano Ahalduen Nagusiak Alkiza bisitatu zuen atzo. Bertan, Jon Roteta alkatearekin izan zen herriaren beharrak zeintzu diren jakin eta horiek bertatik bertara ikusteko. HITZA

Laburrak

'Pozos de ambicion' eta 'Horton' filmak Gurean

VILLABONA » Asteburu honetan, Gurea aretoan helduentzako *Pozos de ambicion* filma emango dute, gaur 22:30ean, bihar 19:30ean eta etzi 21:30ean. Haurrentzako *Horton* filma emango dute bihar 17:00etan.

Euskal Herria-Katalunia kick boxing norgehiagoka

VILLABONA » Bai Euskal Herriari herri ekimenak bultzatuta eta euskal selekzioak aldarrikatzeko asmoz, Euskal Herriaren eta Kataluniaren arteko kick boxing lehiaketa egingo dute, gaur, 18:00etan hasita, Olaederra kiroldegian. Aurretik, *Nazio bat selekzioa* bat leloean, kalejira alaitua egingo dute, 16:30ean abiatuta, herriko plazaan.

Moda desfilea antolatu du Oriak hilaren 19rako

VILLABONA » Oriak merkatarien elkarrekin moda desfilea antolatu du hilaren 19rako Gurea aretoan. Herriko hainbat komertzio hartzen dute parte eta modelo lanetan herriarrek ariko dira. Datorren larunbatarri begira, gaur arratsaldean entsegu egingo dute parte-hartzaile guztiak.

BERRIAK kazetari bat behar du Andoaingo egoitzarako (erref. 08403)

Eskaintzen da:

- Urtebeteko kontratua (luz daiteke)
- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzeko aukera

Eskatzen da:

- Kazetaritza ikasketak izatea

Kontuan hartuko da:

- Kazetaritza lanetan esperientzia izatea
- Quark X Press programa erabiltzen jakitea
- Autoa izatea
- Hizkuntzak jakitea

Bidali zure curriculum gba@berria.info helbide elektronikora, erreferentzia zehaztuz.

GIZA BALIABIDEETAKO TEKNIKARIA (ERREFERENTZIA: EE08-GBT)

Donostialdeko enpresa talde batek Giza Baliabideetako Teknikaria behar du. Giza Baliabideak sailean lan egingo du, eta taldeko langileen administrazioaz eta giza baliabideen kudeaketaz arduratuko da.

Eskatzen da:

- Unibertitate mailako prestakuntza izatea.
- EGA edo baliokidea izatea.
- Giza Baliabideetako gaietan esperientzia izatea (nominak, kontratuak, aukeraketak, prestakuntza...)
- Ofimatika programak erabiltzen jakitea.
- Kontuan hartuko da giza baliabideak kudeatzeko programa informatikoak ezagutzea.

Eskaintzen da:

- Iraupen luzeko kontratua.
- Egun osoko lanaldia.
- Lanean berehalak hastea.

Bidali Curriculum Vitae zehatza, apirilaren 22a baino lehen, gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora. Ez ahaztu erreferentzia zehaztea.



Landareak eta paisaiak ez dira falta Alegian. Arenarentzat landareak margotzea errazagoa da. LUCIA ARENAS

Abstrakzioa ere lantzen du, figurazioarekin nahastuz. L.A.

«Erretratuak egitea dut gustukoan, erronkak dira»

LUCIA ARENAS Margolaria

Tolosa » Hogei urte daramatza margotzen eta bere aita zenarekin «asko» ikasi zuen; bera ere margolaria izan zen.

NEREA URBIZU

Alegiko jubilatuen tabernan hilabete osoan zehar Lucia Arenasen margolanak izango dira ikusgai (Arrasaten jaioa, Tolosan bizi da, 1951). Erretratuak, loreak, paisaiak eta abstrakzioa ere ikus daitezke.

Ez da arruntena erretratuak ikustea erakusketetan.

Ez. Zaila da erretratuak egitea, pertsonen arima ere islatu behar delako. Alegiko erakusketan daudenak, zehazki nire alaba batenak dira, eta hura ia inork baino hobeto ezagutzen dut, noski. Jendeak ere eskatzen dizkit.

Zergatik aukera hau zailenetakoa bada?

Niri erronkak gustatzen zaizkit margotzeko garaian. Erretratu erronka denean gehiago gozatzen dut. Landareak ere egiten ditut baina errepikagorragoa iruditzen zait. Erretratuak egitea interesgarriagoa da.

Hogei bat urte margotzen. Norekin ikasi duzu?

Txikitatik margotzea gustatu izan zait. Ezin da esan autodidakta naizenik, beti ikasten baita norbait ikusita, edo nahi gabe ia. Nire aita ere margolaria zen eta harekin asko ikasi nuen. Nire lehen erakusketak hari eskaini nion, Ordizian. Liburu asko dauzkat ere eta hauekin ere ikasi dut. Tolosako Kultur Etxera joaten naiz gainera, tailerrean margotzera. Beti dago zerbaitekasteko.

Tailerrean margotu egiten duzu.

Bai, hala nahiago dut, bestela etxean baldin banago, goizeko ordu txikitara arte margotzen geldit-

zeko gai naiz, eta hori ez da posible. Tailerrean ordutegi zehatz bat dagoenez, badakit ordu jakin batean margotzeari utzi egin behar diodala. Egunero lau pa bost ordu margotzen aritzen naiz. Goizeko lanak sabela betetzen dit, eta arratsaldekoak, berriz, izpiritua.

Zer da margotzea zuretzat?

Margogintzak modu batean harrrapatu egin nau, oso gustuko dut eta asetzen nau. Batzuetan sufritu egin behar da, ez delako lanen bat zuk nahi bezala ateratzen, baina aldi berean gozagarria da. Denok dauzkagu arazoak, era askotakoak eta margotzeak ahaztarazten laguntzen du. Arazoak alboratu egiten dituzu.

Estiloari dagokionez, denetik ikus daitezke.

Zaila da estiloez hitz egitea. Bakoi-tzaren estiloa edo margotzeko era da azkenean emaitza. Inpresionismoa dut gustuko, surrealismotik zer edo zer ere ikus daitezke... Bakoitzetik zerbaithartzen dut.



N. URBIZU

Datorren erakusketan non jarriko duzu?

Ez daukat zehaztuta, baina baliteke Legorretan izatea nire hurrengo erakusketak. Aranburu jauregian, Lanbroan, Frontonen edota Senperen ere jarri izan ditut nire lanak.



Erretratuak daude ikusgai, besteen artean Alegian. L.A.



PILOTA PARTIDUAK

aspepelota.com

Apirilak 14 • Astelehena
16:30

Uriarte - Apeztegia
Cabrerizo - Galarza VI

11 10 11 11

CAPELLAN - GOÑI III
GONZALEZ - NALDA III

11 10 11 11

Arizmendi // Larralde
(2. Mailako Eskuz Banakako Txapelketa)

Tolosako Beotibar pilotalekuan



NEURE BURUA NIK NEUK
GIDATZEKO PREST!

WWW.MONDRAGON.EDU/PREST

m

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

2008
10.10.2008



Patxaran Baines Masterraren finalaren partida erabakiorra gaur jokatu dute Galarreta pilotalekuan. HITZA

Eskualdeko erremontistik ez da egongo gaur Binakako Txapelketaren finalean

Kirola » Finalaren bigarren partidu erabakiorrean ez egon arren, Zeberio II.ak eta Altuna anaiak partidak dituzte gaur eta bihar.

ASIER IMAZ

Patxi Zeberio, Imanol Altunak eta Garikoitz Altunak ez dute Patxaran Baines Masterraren finala jokatu gaur Galarretan. Hala eta guztiz ere, erremonteko binakako txapelketaren itzuleko partidaren egon arren, eskualdeko hiru erremontistak partidak dituzte gaur eta bihar.

Urteaga-Lizaso aurretik

Finaleko joaneko partiduan Uterga eta Lizasok 40-28 irabazi zieten Juaristi-Iriarte bikoteari. Gaur 16:00etan hasiko den jaialdian, finalaren itzulerako partida jokatu dute Hernaniko Galarreta pilotalekuan. Frontoi motzean irabazi oostean, Iruñako Labrit pilotalekuan, Doneztebeko bikoteak gaur

za bera egin nahi izango dute gaur frontoi luzean.

Patxi Zeberio jaialdian

Zeberio II.ak ez zuen lortu finalean sartzea, hala eta guztiz ere, elduaindarrak gaur Galarretan jokatu den jaialdian parte hartuko du. Ez da izango aste honetan jokatu duen lehen partida, herenegun Etxaberekin bikotea eginaz, Altuna II.a eta Etxeberria III.aren aurka jokatu baitzuen frontoi berrean. Gaurkoan arerioa lagun izango du, Etxeberria III.aren osatuko baitu bikotea.

16:00etan hasiko den jaialdiaren hirugarren partidu jokatu du Zeberio II.ak eta aurrean Ezkurra-San Miguel bikote indartsua izango dute.

Altuna anaiak bihar

Imanol eta Garikoitz Altunak bihar jokatu dituzte euren asteburuko partidak. Altuna Lak Hernaniko Galarretan bota beharko du izerdia bihar 16:00etatik aurrera. Badiola izango du bikotekide

eta aurrean Iñigo-Ion edukiko dituzte. Jaialdiko bigarren partidu izango da.

Altuna II.ari dagokionez, bihar jokatu du Huarteko Euskal Jai Berrin 16:30ean hasiko den jaialdiaren estelarrean. Eizagirre lagun duela, Urriaza-Urrutia bikoteari irabazten saiatuko dira. Patxi Zeberioaren kasuan bezala, aste honetan jokatu duen bigarren partidu izango da.

Pilota horiak erremontean

Binakako finalaren joaneko partiduan, Labriten, pilota horiekin jokatu zuten erremontistek, ohiko txuriek in jokatu beharrean. Enpresako arduradunek jakinarazi zuten, «telebistan hobeto ikusi ahal izateko egin zen esperimentua eta oso emaitza ona eman zuten». Orain Galarretan gaur jokatu den itzuleko partidaren probatuko dituzte pilota horiak. «Ikusi egin beharko da zer nolako emaitza ematen duten Galarretan, bertako lurra Labritekoa baino ilunarra dela kontutan hartuz».

Laburrak

AHTren aurkako bizikleta martxa gaur 15:30ean

GIZARTEA » Tolosaldeko Gaztetxe eta Gazte Asanbladek antolatutako AHTri Ez! Bizikleta Martxa gaur egingo dute. 15:30ean Villabonako plazan elkartuko dira, Anoeta, Alegi eta Tolosa zeharkatuko dituzte. Azken honetan ekitaldi nagusia egingo dute 18:30ean. Ekimenarekin amaitzeko Ibarra joango dira eta bertan afaria egingo dute 21:00etan. Ondoren, gaztetxean kontzertuak antolatu dituzte 22:00etatik aurrera.

Begirale izateko lan poltsa eratzeko deialdia

IBARRA » Uzturpe Ikastolak eta Ibarrrako Udalak *Uztaila Oporretan Euskaraz 2008* ekimena antolatu dute. Bertan begirale izateko lan poltsa eratzeko deialdia egin dute. Baldintzen artean, euskaraz jakitea, begirale titulua izatea eta ibarrra izatea balioetsiko dira. Kurrikulumak apirilaren 18a baino lehen bidali beharko dira ibarra@ikastola.net helbide elektronikora. E-maillean gaiari dagokion lekuan, «oporetan euskaraz» idatzi beharko da.

Udal Haur Eskolan aurrematrizazioa

IBARRA » Udalen Hezkuntza batzordeak jakinarazi duenez 0-2 urte arteko neska-mutilak Udal Haur Eskolan aurrematrizatzeko epea zabalik egongo da apirilaren 18a arte. Izena emateko udaletxera joan beharko da, Euskara Zerbitzura, edo 943 67 38 27 telefono zenbakira deitu. 2 eta 3 urteko neska-mutilak dagokienez, Udalak azaldu duenez Uzturpe Ikastolan eman beharko dute izena. Informazio gehiagorako 943 67 12 99 telefonora deitzea eskatu dute.

Festa Batzordearen bilera etzi, 19:30ean udaletxean

IBARRA » Udal Kultura eta Gazteria Batzordeak San Bartolome jaia antolatzeko lehen batzarra egingo du etzi, astelehenean, 19:30ean Ibarrrako Udal Bilkura aretoan. Udalak herritarrak animatu nahi izan ditu Festa Batzordea agertu eta parte hartu dezaten.

Lauburu KEK gaur jokatu du Basaurin

IBARRA » Lauburu KEK gaur jokatu du areto futbol liga partidu Basaurin (Bizkaia) 18:15ean. Ibartarrek Soloarte taldea izango dute arerio eta etxetik kanpo jokatu dute azken aurreko partidu izango da. Saikapeneko 3. postuari eusteko Txubel entrenatzaileak jokalaririk gehienak izango ditu prest. Nazional mailako jubenilak lehen taldearekin bidaiatuko dute, Ses-taon (Bizkaia) jokatu baitute euren norgehiagoka.

Bihar amaituko da VII. Aste Misiolaria

IBARRA » Ibarrratik Misisio Taldeak antolatu duen VII. Aste Misiolaria bihar amaituko da. Gaur 16:30ean Elkartasunaren Ziklo Indoor Maratoia izango da Belabieta kiroldegian. 80 partaidek eman dute izena eta 3 orduz ibiliko dira bizikleta finkoaren gainean. Antolatzaileek herritarrei eta inguruko kiroldegira azaltzeko deialdia luzatu diete, ekimenari elkartasuna eskaintzeko. Bihar, azken egunean, Parroki Elkartearen Eukaristi misiolaria ospatuko dute.

Jubilatu elkarteak irteera antolatu du Errioxara

BERASTEGI » Gaztainondo jubilatuen elkarteak Aldeanueva de Ebroa (Errioxa) egun pasa antolatu du apirilaren 24ean. Bertan ardo upategi bat ezagutzeko aukera izango dute, hamaiketako eta ardoa dastatzeari batera, herriko eliza eta inguruneak ezagutzeko dituzte. Bazkaria ere bertan egingo dute. Izena eman nahi duenak Gaztainondo elkartera joan beharko du. Bazkideek 30 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek 33 euro.

Ibarra eta Eizmendi elebitasunari buruz

ALEGIA » Datorren ostegunean 19:00etan Alegiako eskolan Julio Ibarra kazetariak eta Iñaki Eizmendi gizarte hezitzaileak elebitasunari buruzko hitzaldia emango dute. Hizlariek etxetean gertatzen diren eguneroko gaiak jorratuko dituzte. Euskaraz izango da.

Hilberriak eta urteurrenak

MARTIN ARRUTI ARTOLA



Urak dakarrena urak daroa zuk emandakoa gurekin gelditzen da

OIARTZUN
2008ko apirilaren 12a

Zure bilobak, Manex, Ane eta Elaia

SEGISMUNDA ITURRIOZ ARANBURU

(Salbador Urretabizkairean alarguna)

- G. B. -

Zure bilobak: Maria eta Joseba, Urko eta Aloña, Francisco Javier eta Elixabete, Maria eta Jon, Iñigo, Gaizka, Mikel eta Aloña, Borja eta Laida, Markel eta Naiara, Ane, Ander; birlobak: Mikel, Jon, Leire, Iñigo.

MAITE ZAITUGU AMONA



LEGORRETA
2008ko apirilaren 12a

IMANOL SARASOLA OLAIZOLA

(2. urteurrena)



2006ko apirilaren 13an hil zen 36 urte zituela Urteurren meza, apirilak 13, IGANDEA, Oiarzungo parrokiaren, eguerdiko 12:00etan.

Guregan betirako biziko zara, ez baita inor hiltzen, ahazten ez bada



OIARTZUN
2008ko apirilaren 12a

Zure emazte eta alabak



Teresa Martínez, Virginia Eraso, Juncal Otxotorena eta Amaia Alduntzin teknikariak bilera egin ondoren, Leitzan duten egoitzaren kanpoan. N. GARZIA

Zonaldeko beharrak azaldu dituzte Gizarte Zerbitzuetakoe

Gizartea » Nafarroako Legebiltzarreko zenbait kide hurbildu ziren herenegun bertara, NaBaik urrian egindako eskaera baten ondorioz.

NAIARA GARZIA

Herenegun Nafarroako Legebiltzarreko Gizarte Zerbitzuetakoko, Familia, Gazte eta Kirol arloko komisioak Leitzako Gizarte Zerbitzuen egoitza bisitatu zuten. Partidu ezberdinetako ordezkariak (EBrena izan ezik) bertako teknikariek eta Leitza, Areso, Goizuet eta Aranoko Mankomunitateko ordezkariekin bildu ziren. Programan berez Okille tailerrera bisita ofizialki egin behar ez zutela jartzan ez zuen arren, hasiera batean komisioak bertara joateko asmoa zuten, nahiz eta azkenean denbora faltagatik alde egin behar izan zuten, 12:00etarako Altsasuara joan behar baitzuten.

Mankomunitateko ordezkariak eta Gizarte Zerbitzuetakoko teknikariek joan den ostiralean egindako bilera batean hitzartu zuten bezala, bilera lehenengo euskaraz egi- tea erabaki zuten eta gero erdaraz. Bilera hasi bezain laister, UPNren zinegotzi bezala Mankomunitateko kide den Silvestre Mari Zubiturrek alde egin zuen. Mankomunitateko gaintzeko kideek bere jar- rerra gaitzetsi zuten. «Ezusteko ederra hartu dugu Mankomunitateko kide batek jarrera hori hartu duenean, bileretara inoiz ez dela azaltzen kontuan hartuta», dio Xa-

bier Zabalo Mankomunitateko ki- deak.

Juncal Otxotorena Gizarte Zerbitzuetakoko teknikaria da eta bile- ran egon zen. «Egin duguna izan- du dagure zentroa kokatu, eta gero laburbilduta gure historia kontatu dugu: 90ean hasi ginela lanean, gizarte langile batekin eta admini- stratibo batekin eta programa bakarra eramaten». Orduetik, or- dea, gauzak asko aldatu dira. «Gaur egun 4 programa daude, azpi- programekin eta 13 pertsona gaudela lanean. Bilakaera horrek adierazten du gizartea aldatzen di- joan heinean behar berriak sor- tzen direla eta orduan sortzen di- ren behar berriei erantzuna eman- ten saiatu gara». Honetaz gain, Otxorenak Mankomunitateak haien alde egindako apustua ere azpimarratu zuen.

Virginia Eraso ere Gizarte Zer- bitzuetakoko teknikaria da eta here- negungo bileraren inguruan gogo- eta egin du. «Nik aterako nukeen ondorioa da Legebiltzarrekoek ikusi dutela gure zerbitzua kalita- tetzkoa dela eta herritarrek oroko- rrean ongi atentiduta daudela».

Beharrak

Leitzan kokatuta dagoen zentroa- ren aurkezpena egin ondoren, tek-



Bilera egin ondoren balantze bat egiteko bildu ziren. N. GARZIA

nikariek Goizuetan eta Leitzan oro har dituzten beharrak azaldu zituzten. Leitzari dagokionez, osasun-etxea, udaletxea eta beraien egoitza hain sakabanatuta egotea ez zela batere baikorra azaldu zu- ten eta beste zenbait zerbitzuekin koordinazioa bultzatzearen gar- rantzia azpimarratu zuten. Hez- kuntza Departamenduari eta Osasun Departamenduari, ba- tik bat.

Bestalde, norbaitek beraien lana gainbegiratzeko beharra ere azal- du zuten, bai indibidualki bai talde bezala. «Haur eskolak ere garran- tzitsuak dira», adierazi zuen Juncal Otxotorenak. «Garrantzitsua izanena litzateke bai Leitzan bai Goizuetan 0-3 urte bitarteko hau- rrentzako haur eskolak izatea, izan ere, Goizuetan ez dago haur esko- larik eta Leitzako urte batetik au- rrerako umeentzako da».

Beste zenbait beharren artean, ondorengo hauek azaldu zituzten: «herrigune bat, garraio publikoa indartzea, dinamizatzaile baten beharra (bai gazte bai jubilatuen- tzat), eta integrazio politikak bul- tzatzea, eskolatan bereziki. «Etor-

kinekin lan egitea garrantzitsua dela uste dugu, eskolatan batik bat eta zentzu honetan integrazio proiektuak bultzatzea».


Bilera 'nahasia'

Bai teknikariek bai Mankomuni- tateko kideek bilera amaitu ondo- ren azaldu zuten, argi gelditu zen zentro honek kalitatezko lana eskaintzen duela, baina hainbat ki- dek Legebiltzarreko bilera hau egi- teko modua gaitzetsi zuten. «Mar- txo hasieran Legebiltzarretik dei- tu ninduten, bilera hau egin behar zutela esanez eta noiz etorriko zi- ren azalduz», dio Ainara Gasteare- na Mankomunitateko lehendaka- riak. «Ostiralean Mankomunitate- ko eta Gizarte Zerbitzuetakoko kideak elkartu ginen, Legebiltza- rrekoak etortzean bilera prest izate- ko, ez baikenekien zer nahi zu- ten. Nire inpresioa da Mankomuni- tatetik kanpo gauzak mugitu direla Mankomunitatearekin kontuan hartu gabe, eta hori oso grabea da». Forma ez zela «batere egokia» izandu ere gehitu zuen. «Erakunde nagusia Mankomuni- tatea da, eta hemen erabakitzen dira gauzak. Normalago da guk bildu, zer behar dauzkagun ikusi eta horrekin eskaera bat egitea». Zabalok ere bere iritzia eman zuen. «Beraiek antolatuta zuten ber- ra hau Legebiltzarrean, NaBairen eskaera baten ondorioz», dio Zaba- lok, «eta komisioa zenbait ki- dek ere ez zekiten horrela izandu zenik. Egia esanda ez genekien bi- lera non kokatu». Bestalde, Zaba- lok Nafarroako Gobernuak eman- ten dien diru laguntzekin «pozik» daudela azaldu zuen.

Okille tailerra

Honetaz gain, Zabalok sentsazio gazi-gozaorekin gelditu zela ai- patu zuen, komisioa Okille tailerra ikustera ez zela joan ikusita.

«Nire ustez horrelako tailer bat ikustea garrantzitsua zen, horrela- ko herri batean horrelako elkarte batek duen garrantzia ikus dezate- n, 7 kide soilik izan arren», dio Pablo Feok Okille tailerreko ardu- radunak. «Behar bada Iruñean ez litzateke garrantzitsua, baina he- men bai. Herriek tratamendu ez- berdin bat merezi dute diru lagun- tzak banatzeko orduan, bestela horrelako guneak desagertzera kondenatuak daude». Azkenik, egiten duten lana «oso garrantzi- tsua» dela gehitu zuen Pablo Feok.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



13°
8°

GOIZA
ARRATS.
BEROENA
HOTZENA

EURIA
ESTALIA
14°
7°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Musika

■ **Tolosa.** Ezinean eta Memo musika taldeen kontzertuak izango dira Bonberenean 22:30etik aurrera.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Eguzki energiaren aplikazioen erakusketa Fronton jate txeko terrazan 12:00etan Naturaldia jardunaldien barruan.

■ **Tolosa.** Samaniego eko-ikastetxera bisita 10:00etan, Naturaldia jardunaldien barruan

■ **Irura.** Omenaldia Laskibar eta Jauregi-Berri baserrietako ordezkariak, Aitor Mendiluze bertsolaria eta Lore Amenabar soinujoalaria: 12:30ean harrera, ondoren bazkaria, bertso saioa Jokin Sorozabal eta Unai Agirrerekin eta, erromeria Unsain Anaia Taldearekin.

■ **Ibarra.** II. Ziklo Indoor Maratoia 16:00etatik aurrera Belabieta kiroldegian, VII. Misio Astearen barruan.

■ **Villabona.** Euskal Herria-Katalunia kick boxing lehia izango da: 16:30ean kalejira plazaatik abiatuta *Nazio bat, selekzio bat* lelopean eta 18:00etan ekingo diote lehiaketari Olaederra kiroldegian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.

■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.


Finalisten aurretik, azkenak



AINTZANE ARTOLA OTAMENDI (TOLOSA) «Aste Santuko oporretan Holandako Gouda herrian paseoan genbiltzala, bi lagun hauek topo egin zuten. Merienda ederra egin genuen gazta pare hoiekin», azaldu digu Aintzane.



MIKEL AROSTEGI (TOLOSA) «Teruel aldera egin du Mikel Arostegik txangoa Aste Santuan «Teruelgo Tibetean, hotza, elurra eta lehorraren artean jaun hau agertu zitzaigun, bere begi eta guzti».



ITZIAR LAHALDAGA (VILLABONA) «Oporretan Granadan dagoen leku pintoreskoa den Alpujarretako herrietako batean ateratako argazkia da honakoa. Ingurune honetako etxeak txuriak dira eta tximiniek herri hauen ezaugarrietako bat osatzen dute».



ANE BALERDI BEGIRISTAIN «Argazki hunkigarria aukeratu du Ane Balerdik argazki lehiaketan parte hartzeko. Hauxe azaldu digu berak: «Saharako Dajla kanpamentuan ahuntzak mantendu ezinik».

A Agurrak



Urte askoan!

Iraia Gonzalez Azkolain. Gaur 2 urte. Zorionak popoli, gurasoen partetik.



Urte askoan!

Urte askoan bihurri!



Zorionak!

Zorionak. Segi halaxe jator-jator. Gurasoen partetik.

zeu
ileapaindegia
ileapaindegi berritua

har ezazu zure txanda
943 671 427

santa klara 8. Tolosa